OTSAILA
2021

# Lanberriak

ccoo.eus

# ZAINTZA ETA GIZARTE ZERBITZU PUBLIKOAK INDARTU

euskadiko langile komisioak

## MARTXOAK

## 4

## MOBILIZAZIOAK

**Bilbao - 10:50**
Pio Baroja plazatik

**Donostia - 11:15**
Bolulevardeko kioskotik

**Gasteiz: - 11:00**
Los Guardias plazatik

# GREBA

# Euskadiko CCOOk mobilizazio agenda martxan jarri du gizarte zerbitzu eta zaintza zerbiztu indartsuak eskatzeko, egoera bereziki zailean dauden pertsonen beharrei erantzungo dienak.

Gaur egun dugun euskal gizarte zerbitzua publikoa da baina gehien bat kudeaketa pribatukoa eta ez ditu oinarrizko beharrak gutxieneko kalitate baldintzetan ematen. Horregatik zerbitzu horiek indartu eta duin bihurtuko dituen aldaketa eskatzen dugu egoera horiek behar duten prebentzioa eta eskuhartzeari aurre egin ahal izateko.

Lan prekarietatea eta dagoen lan karga handiak ezinezkoa egiten dute herritarrek behar duten erantzun eraginkorra ematea, eta erantzun hori funtsezko dela argi erakutsi du 2020ko pandemiak.

Adminsitrazio publikoa da egoera honen erantzule baina erantzunik ematen ez duenez, urtarrilaren 26an lehenengo greba deialdia egin genuen. Horrekin jarraituta martxoaren 4ean beste borroka egun bat ezarri dugu, eta greba deialdia egingo dugu berriro ere, gizarte eta zaintza zerbitzuetako sektoreko langileentzat.

- Administrazio publikoak zaintza eta gizarte zerbitzuen zuzeneko prestazioa ematearen alde, baldintza egokietan eta kalitatezko zerbitzua ematea ahalbidetuko duen ratioen zabaltzearekin.

- Hitzarmen kolektiboak berritzearen alde, langile gehiago eta langileen osasunaren babesa hobetu.

- Kalitatezko gizarte eta zaintza zerbitzu publiko, unibertsal eta doakoak ahalbidetuko dituen finantzazio nahikoa bermatzearen alde.
- Ezkutuko ekonomian dauden etxeko langileen erregulazioaren eta LANEren 189. hitzarmena berrestearen alde.

- Europako eskubideekin bat datorren negoziazio kolektibo eremua eta etxeko langileentzat sektoreko hitzarmen kolektiboa sortzearen alde.

- Etxeko langileentzat prestazioetarako sarbidea: langabezia (ez orain dauden moduan egoera berezia dela eta) eta 55 urtetik gorakoentzako subsidioa.